

LABURRERAN

HISTORIA

Bilboko historiari buruzko hitzaldi sorta emango dute gaurtik aurrera hainbat adituk

Gaurtik hilaren 31 bitartean, Historiako bederatzik katedradunek Bilboko historiari buruzko hitzaldiak eskainiko dituzte Bizkaiko hiriburuan. Iñaki Azkuna alkateak atzo adierazi zuenez, Bilbok sortzetik gaurdaino izan dituen aldaketak izango dituzte aztergai. Jose Angel Garcia Cortazar, Jose Ramon Pinedo, Manuel Gonzalez Portilla eta Manuel Montero izango dira, besteak beste, hizlariak.

MUSIKA

Rio de Janeiroko rock jaialdiak milioi bat lagun baino gehiago bildu ditu

Rio de Janeiron atzo gauean amaitu zen rock jaialdiak milioi bat lagunetik gora lagun bildu zituen astebetean. Antolatzaileek musika estilo anitzten aldeko apustua egin zuten, eta, ondorioz, gustu eta kolore guztietako musikariak entzun ahal izan ziren. Red Hot Chili Peppers taldeak 250.000 jarratzaile bildu zituen, baina beste zenbait taldek ere arrakasta itzela izan zuten, besteak beste, REM, Guns and Roses, Neil Young eta Sepulturak.

ANTZERKIA. Heriotza zigorraren gainean ikusleari gogoeta eginarazi nahi diotela azaldu du Luis Olmos zuzendariak

‘El verdugo’ umore beltzeko filmaren egokitzena eskainiko dute Arriagan

Juan Echanove eta Luisa Martin aktoreak dira gaurtik otsailaren 3ra bitartean ikusgai izango den antzezlaneko protagonistak

Maidar del Olmo | BILBO

Luis Olmosek zuzenduriko *El verdugo* tragikomedia estreinatuko dute gaur Arriagan, Luis Garcia Berlangak eta Rafael Azconak zinemarako idatzirik gidoiaren egokitzena. Otsailaren 3a bitartean izango da Bilbon. Antzezlanak 60ko hamarkadako Madril hiria birtotzen du eta, hain zuzen, XX. mendeko espainiar zinematografiako filmik aipatuenetarik baten bertsioa da.

Luis Olmos zuzendariak atzo prentsaurrekoan azaldu zuenez, dramatismo sendoko obra honek egoera zailenetan beharrik gizakia zertara bultzatzen dezan. Heriotza zigorraren gaia nabarmen bada ere, gizabanakoaren askatasunaren eta hark amets egiteko duen gaitasunaren gaineko gogoeta ere agertzen dira.

Zuzendariaren arabera, «helburua ikusleak gogoz barre egitea da. Baina ez dugu soilik algarra hutsean geratu nahi. Gogoeta ere egin dezan nahi dugu, hain zuzen, ohartzea zergatik egiten duen barre. Umore beltza denez, ikusle asko euren barrea zeinen krudela den konturatuko dira», adierazi zuen Olmosek.

Jatorrizko filmarekin alderatuz, antzezlaneko pertsonaiak «hobeto zehaztuta» daudela uste du zuzendariak. Hizkuntzari dagokionez, berriz, «zuzena eta xumea» dela azaldu zuen.

Hiru urte iraun duen proiektu



JOSU ETXABARRIOSTE
Luisa Martin eta Juan Echanove aktoreak, atzo, Bilbon.

honek zinemako gidoiari dion fideltasuna ere nabarmendu zuten atzoko agerraldian.

Maiteminduen ametsak

Juan Echanove eta Luisa Martin *El verdugo*-ko aktore nagusiak ere izan ziren prentsaurrekoan. Echanovek antzezlanean emozioek filmean baino indar handiagoa dutela adierazi zuen: «Bestetik, antzezlan oso zinematografikoa dela ere esan beharra dago. Denbora-espazio salto ugari daude. Nabari da film batean oinarrituriko antzezlan dela», azaldu zuen Echanovek.

Luisa Martin aktorea «oso pozik» agertu zen atzoko agerraldian, eta Arriagan antzezteak «zirrara berezia» sortzen diola azaldu zuen.

Argumentuari dagokionez, ametsak eta gizabanakoaren askatasuna dira ardatz nagusiak. Amadeo borreroak Carmen izeneko alaba du. Neska Jose Luis ehorzle gaztearekin maiteminduko da. Bi gazteek, bizi duten errealetik at, bizitza berri bat amestuko dute. Carmenen ustekabeko haurdunaldiak, baina, gauzak korapilatu ditu. Gauzak horrela, senargia bere borondateraren kontra borrero bilakatuko da, eta emakumezko preso bat hil beharko du bere lehen lan egunean. Horrek eragiten dion egoenezina taularatuko dute.

Lana Gasteizen eta Iruñean ere antzeztuko dute. Donostian ere antzeztekoak ziren, baina leku arazoa dela-eta bertan behar utzi dute asmo hori.



PACO TORRENTE / EFE
Antonia San Juan.

ANTZERKIA

Antonia San Juanek ‘Otras mujeres’ antzezlan aukeztuko du bihar Bilbon

Antonia San Juanen *Otras mujeres* antzezlan bihar arratsaldeko 20:00etan emango dute Bilborock aretoan. San Juanen zuzendaritzapean, hainbat emakumeren ezkutuko istorioak kontatzen dira antzezlan horretan.

ONDAREA

Balenziagaren bederatzik jantzi erosi ditu Madrilgo Antropologia Museoak

Madrilgo Antropologia Museoak Cristobal Balenziaga euskal jostunaren bederatzik jantzi eskuratu zituen atzo enkante publiko batean. Museoaren ardura-dunek adierazi zuten, aurrerantzean bederatzik jantzi horiek aipatu museoan izango dira ikusgai.

DANTZA

Granadako Dantza eta Musika Jaialdiak 50. urteurrena beteko du aurten

Ekainaren 22tik uztailaren 8ra egingo den Granadako (Andaluzia) Dantza eta Musika Jaialdiak 50 urte beteko ditu aurten. Antolatzaileek maila handiko parte-hartzaileak ekarriko dituzte urtemuga hori ospatzera, besteak beste, Pragako Orkestra Filarmonikoa eta Berlingo Opera Baleta.

ARTEA

Artium zuzentzeko hautatutako galeristak ez du oraindik erantzunik eman

Maria Martin Gasteizko Artium museoa zuzentzeko aukeratutako galeristak ez du oraindik erabaki proposamena onartuko duenetz. Atzo Pedro San Cristobal diputatuarekin bildu zen Maria Martin.

KRITIKA OPERA

Jesus Mari Begoña

Kalitatezko Madama

‘Madama Butterfly’

Abeslariak: Xiu-Wei Sun, Stephen Mark Brown, Ning Liang, Jorge Lagunes, Jose Ruiz, Pablo Pascual. **Abesbatza:** Bilboko Operaren Abesbatza. **Orkestra:** Bilboko Orkestra Sinfonikoa. **Zuzendaria:** Yoram David. **Tokia:** Bilboko Euskalduna Jauregia. **Eguna:** Hilak 20.

Maila onekotzat har dezakegu Pucciniren opera *verista*, eskasa izan arren ikusitako eszenografia. Guztien gainetik, rolez eta ekintzaz, Xiu-Wei Sun soprano txinatarraren erakustaldia egon da. Bere ahots liriko *spintoak* —nahiz eta dramatiko gertuago izan— eder abestu zuen Cio-Cio-Sam-en gaztaroaren errugabetasuna, eta andere arbuia-tuaren heldutasun dramatiko. Pertsonaiaren bi alde horiek bolumen handiko eta tesitura zabaleko ahotsarekin menperatu zituen, uhin luzeko *vibrato*-a erabiliz: lirismoa amodiozko duan, esaldatze eta filadoak *E izaghi de Izanami* edo *Loreen Duon*. Dramatismoa desaginuaren eta suizidioaren eszenetan. Eder ekialdeko heroina pasiboaren tauletan, hazpigiaren adierazgarritasuna azalduz bai gazte denboretan, alai, zein helduaren sasoiaren, atsekabez beterik.

Gaueko irabazlea suertatu zen, publikoaren gustukoa. Beste maila batean, atsegin egin zitzaigun Brown tenorren kantaldi afinatua, akatsik gabea. Gogor hasi arren *parlando*, amodiozko duan nabarmen geratu zen bere bolumen erdiko ahots suabea. Tinbre atsegineko ahots polita eta gustuzko kantaldia erakutsi zigun Ning Liang mezzook, batik bat *Loreen duan* eta Suzuki neska-me leialaren antzez-moduetan. Sendoa eta sinesgarria izan zen Jorge Lagunesen kantaldia amerikar kontsularen rolean, baxuaren ahots tinbratuarekin tesitura erdian. Ruiz, Varela, Pascual, Ojanguren, Perez eta Landetxok polito abestu zuten euren rol laburretan.

Zuzendaritza musikala eta eszenarena ados jarri ziren, antza, jatorrizko bertsio errealistara itzultzeko, distiratsuenaren kalterako. Yoram Davidek, guztien gainean orojakile, baliozko irakurketa musikala egin zuen BOSeKin. Bilboko Operaren koruak eder abestu zuen, batez ere emakumeek *O Kami* eta *A boca chiusa*-n. Aldiz, zuzendaritza eszenikoa bakuna iruditu zitzaigun: nekazal giro xumea errealismoaren ildoan azaldu bazuen ere, eskasa gertatu zen *atrezzo*-an, arropetan eta argiztatze lanetan.